

Justizia-Administrazioa. Administrazio Publikoa eta herritarrak

1 Justiziaren Oinarriak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Justizia Administrazioarekiko
Herritarrentzako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Relaciones con la
Administración de Justicia

1.1. Justizia-administrazioa

“Justiziaren jatorria herrian dago, eta Aginte Judiziala osatzen duten eta independenteak, aldaezinak eta arduratsuak diren eta soilik legearen menpe dauden epaile eta magistratuek administratzen dute, Erregearen izenean”.



I. Justizia administratzeko funtzioa

- Funtzio jurisdikzionala Epaileek eta Magistratuek betetzen dute, eta epaitzean eta epaitutakoa betearaztean datza.
- Epaileak eta Auzitegiak, beren funtzioak betetzen dituztenean, inpartzialak eta independenteak dira. Horrek esan nahi du beren funtzioa betetzen dutenean ez daudela inolako organo publikoren menpe, organo hori legegilea (alderdi politikoak), betearazlea nahiz aginte judizialekoa izan.
- Epaileak eta Auzitegiak, soil-soilik Konstituzioaren, legeen eta ordenamendu juridikoaren gainontzeko arauen menpe daude.
- Haien funtzioa, ebatzi behar dituzten kasu zehatzei legeak aplikatzea da.

- Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusia, Aginte Judiziala osatzen duten Epaile eta Magistratu guztien gobernu-organoa da.
- Epaileen izendapenez, igoerez, ikuskapenez, diziiplina-erregimenaz eta bateraezintasunez arduratzen da.
- Auzitegi Goreneko Lehendakariak eta Diputatuen Kongresuaren eta Senatuaren proposamenez bost urteko aldirako izendatutako 20 mahaikidez osatuta dago. Auzitegi Goreneko Lehendakaria izango da guztion buru, eta mahaikideak aintzatespen handiko legelariak izango dira.

- Autonomia Erkidegoak Justizia-Administrazioaren funtzionamendurako beharrezkoak diren baliabide material eta ekonomikoen gaineko eskumenak ditu (Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 35. artikulua).



II. Funtzio jurisdikzionalaren organoak

1. Funtzio jurisdikzional arrunta egiten duten organoak ondoko hauek dira:
 - Auzitegi Gorena: estatuan.
 - Auzitegi Nazionala: estatuan.
 - Auzitegi Nagusia: Autonomia Erkidego bakoitzean.
 - Probintzia Auzitegiak: probintzia bakoitzean.
 - Instrukzioko Epaitegi Zentralak: estatuan.
 - Zigor Arloko Epaitegi Zentralak: estatuan.
 - Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiak: epaitegi-barruti bakoitzean.
 - Zigor Arloko Epaitegiak: probintzia bakoitzean.
 - Lan Arloko Epaitegiak: epaitegi-barruti bakoitzean bat edo gehiago.
 - Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiak: probintzia bakoitzean.
 - Espetxeratuen Zaintzako Epaitegiak: probintzia bakoitzean, edo bi probintzian edo gehiagotan bakarra.
 - Adingabekoen Epaitegiak: probintzia bakoitzean.
 - Bake-Epaitegiak: udal bakoitzean.

Bake-epaitegiak

- Pertsona bakarreko organoak dira.
- Titularra ez da karrera judizialeko profesional bat. Zuzenbidean ezjakina da, eta bere kargua lurraldekoa da.
- Erregistro Zibileko funtzioak betetzen dituzte, eta Lehen Auzialdiko Epaitegiei laguntza judiziala ematen diete (jakinarazpenak, zitazioak, eta abar).
- Hutsegite-epaiketak egiten dituzte, Legeak adierazitako kasu jakin ba-tzuetan (errazak diren kasuetan).

Adingabekoen epaitegiak

- Pertsona bakarreko organoak dira, profesionalizatuak, eta karrera judizialekoak.
- Egoitza probintziako hiriburu bakoitzean dute.
- 14 eta 18 urte bitarteko adingabekoen (edo kasu batzuetan 21 urte bitartekoek) delitu edo hutsegitetzat tipifikatutako portaerak aztertzen (epaitzen) dituzte.
- Delitu-egilea 14 urtetik beherakoa bada, adingabekoak babesteko erakundeek esku hartzen dute.

Espetxeratuen zaintzako epaitegiak

- Askatasun gabetzeko zigorren exekuzioari eta segurtasun-neurriei loturiko gaiak ebazten dituzte, eta diziplina-ahalmeneko egintzetan (adibidez espetxean egindako hutsegiteengatik zigorrak) espetxeetarako administrazioaren kontrol juridikzionala egiten dute. Era berean, espetxeratuen eskubideak eta onurak zaintzeaz arduratzen dira.

Administrazioarekiko auzietako epaitegiak

Jurisdikzio honetan, herritarren eta edozein administrazioaren artean edo bi administrazioen artean sor daitezkeen gai guztiak ebazten dira. Zehazki, ondoko administrazio hauei loturiko gaiak:

- Estatuko Administrazio Orokorra.
- Autonomia Erkidegoetako Administrazioak.
- Toki-Administrazioa edo Udalak.
- Oro har, Zuzenbide Publikoari loturiko Erakunde guztiak.

Lan-arloko epaitegiak

Enpresarien eta langileen artean sortzen diren auziak ebazten dituzte, kooperatibak barne: Gizarte-Segurantzaren gai guztiak, Lan-Mutualitateak, ezgaitasunak, langabezia, lan-istripuak, eta abar. Era berean, eskubide sindikalen tutoretzari, Hitzarmen Kolektiboak aurkatzeari eta abarri loturiko auziak ebazten dituzte.

Zigor-arloko epaitegiak

- Legeak 3 urte arteko espetxe-zigorra ezartzen dien delituengatik kausak epaitzen dituzte, aldeztatik Instrukzioko Epaitegiek instrukzioa egin ondoren.
- Lan-Arloko Epaitegi Zentralek, probintziaz gaindiko lurralde-eremuan egindako delituak epaitzen dituzte.

Instrukzioko epaitegiak

- Pertsona bakarreko organoak dira (Epailea edo Magistratua), karrera Judizialekoak.
- Delituengatik kausak izapidetzen (ikertzen) dituzte.
- Kasu jakin batzuetan, hutsegiteak epaitzen dituzte.
- Instrukzioko Epaitegi Zentralek, probintziaz gaindiko lurralde-eremuan egindako delituak ikertzen dituzte.

Lehen auzialdiko epaitegiak

- Pertsona bakarreko organoak dira (Epailea edo Magistratua),

karrera Judizialekoak.

- Gai juridiko zibilak, ohiko deklarazio-prozesuak, borondatezko jurisdikzioko gaiak, eta Bake-Epaileen ebazpen judizialen aurkako Errekurtsuak ebazten dituzte.
- Erregistro Zibileko funtzioak.
- Lehen Auzialdiko Epaitegirik ez duten herrialdeetan, Bake-Epaitegiak daude.
- Udallerri askotan Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiak daude, hau da, Epaile edo Magistratu titularrak gai zibilak eta penalak ebazten ditu.

Familia-arloko epaitegiak

- Familia-Zuzenbideari buruzko gai jakin batzuk ebazten dituzten Lehen Auzialdiko Epaitegiak dira (Banantzea, Dibortzioa, Baliogabetasuna, Ezkontzaren ekonomia-erregimena, ezgaitasunak, eta legeak adierazten dituen gainerakoak).

Probintzia-azitegiak

- Egoitza probintziako hiriburuan dute.
- Organo kolegiatuak dira, Lehendakariak eta bi magistratuz edo gehiagoz osatuak.
- Horien eremua probintzia da.
- Bi sekzio edo gehiago izan ditzakete, Lehendakariak eta bi Magistratuz osatuak.

Auzitegiko Lehendakaria, Lehen Sekzioko Lehendakaria da.

- Eskumenak:

- a) Arlo zibilean: Lehen Auzialdiko Epaitegien ebazpen judizialen aurkako errekurtsuak eta eskumen-arazoak ebazten dituzte.
- b) Zigor arloan: hiru urtetik gorako espetxe-zigorrekin zigortzen diren delituen auzipetzea. Espetxeratuaren Zaintzako Epaitegietako Zigor-Arloko eta Instrukzioko Epaitegiek zigorrak betetzearen alorrean emandako Ebazpenen aurkako Errekurtsuak ebazten dituzte.

Auzitegi Nagusiak

- Autonomia Erkidego bakoitzean Organo Jurisdikzional Gorenak dira, eta Lehendakariak eta Sala bakoitzerako ezartzen diren Magistratuez osatuta daude.
- Lau sala ezberdin dituzte: Zibilekoa, Zigor-Arlokoa, Lan-Arlokoa eta Administrazioarekiko Auzietakoa.
- Epaile eta Magistratuen eta Ministerio Fiskaleko Kideen aurkako kausak auzipetzen dituzte, Autonomia Erkidegoan beren kargua betetzerakoan egindako delitu edo hutsegiteengatik, beti ere Auzitegi Gorenaren eskumenekoak ez badira.
- Diharduten Erkidegoan bertako Foru Zuzenbideari buruz sortzen diren auziak ebazten dituzte.

Auzitegi Nazionala

- Organo kolegiatua da, estatu osoan du eskumena, eta egoitza Madrilen dago.
- Eskumenak:
 - a) Zigor-Arloko Sala: nazioarteko delituen auzipetzea.
 - b) Administrazioarekiko Auzietako Sala: Ministroen eta Estatu-Idazkarien egintzen aurkako errekurtsoak.
- Egoitza berean Instrukzioko Epaitegi Zentralak eta Zigor-Arloko Epaitegi Zentralak daude.

Auzitegi gorena

- Organo Jurisdikzional guztietatik maila gorena duen Organoa da, egoitza Madrilen dago, eta estatuko lurralde osoan du eskumena.
- Ondoko hauek osatuta dago: Lehendakari bat, Saletako Lehendakariak, eta ezartzen den Magistratu-kopuru bat.
- Bost Sala ezberdinez osatuta dago: Lehena: Zibilekoa; Bigarrena: Zigor-Arlokoa; Hirugarrena: Administrazioarekiko Auzietakoa; Laugarrena: Lan-Arlokoa; Bosgarrena: Arlo Militarrekoa.
- Eskumenak:
 - a) Arlo Zibila: Probintzia Auzitegien Epaien aurkako Kasazio-Errekurtsoak, hala dagokionean. Berrikusteko Ohiz Kanpoko Errekurtsoak.
 - b) Zigor-Arloa: Probintzia Auzitegien Epaien aurkako Kasazio-Errekurtsoak. Auzitegi Nazionala.
 - c) Lan-Arloa: Epaitegiek lan-arloan emandako Epaien aurkako kasazio-errekurtsoak eta berrikusteko ohiz kanpoko errekurtsoak.
 - d) Administrazioarekiko Auzietako Arloa: Auzitegi Nagusietako Administrazioarekiko Auzietako Salek emandako Epaien aurkako kasazio-errekurtsoak.

Auzitegi konstituzionala

Estatuko lurralde osoan du eskumena, eta Parlamentuak eta Senatuak 15 urtetik gorako lan-jardun profesionala duten legelarien artetik izendatutako 12 kidez osatuta dago.

Ondoko gai hauek ebazteko eskumena du:

- Legeen eta lege-indarra duten Xedapenen aurkako konstituziokontarakotasun-errekurtsoak.
- Babes-Errekurtsoak, inork Konstituzioan aintzatesten diren funtsezko eskubideetakoren bat zapaldu diotela uste duenean.
- Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen artean edo zenbait Autonomia Erkidegoren artean sortzen diren eskumen-gatazkak.



III. Epaimahaia

- Herritarrek Justizia-Administrazioan parte hartzeko era bat da.
- Legeak adierazten dituen delitu jakin batzuetarako (gizahilketa edo homizidioa, hilketa, funtzionarioek egindako delituak, eta abar).
- Epaimahaietako kide gisa jardutea nahitaezkoa da, eta ordainsaria jasotzen da.
- Bateriaezintasunen erregimena, abstentzioak eta ezespenak, legeak adierazten dituen kasuetan.



IV. Justizia-administrazioko langileak

1. Karrerako Epailleak eta Magistratuak. Funtzio jurisdikzionala betetzen duten bakarrak dira.
2. Idazkari Judizialak: fede publiko judiziala dute. Justizia-Administrazioko Ofizial, Laguntzaile eta Agenteez osatuta dagoen bulego judiziala zuzentzen dute.
3. Ofizialak: prozeduren tramitazioa egiten dute.
4. Laguntzaileak: administrazio-funtzioak betetzen dituzte.
5. Agente Judizialak, antzinako aguazilak. Zitazioak, jakinarazpenak, jabetza-kentzeak eta abar egiteaz arduratzen dira.



V. Ministerio Fiskala

- Justiziaren jarduna sustatzeaz arduratzen da, legalitatea, herritarren eskubideak eta legeak babesten duen interes publikoa defendatu asmoz.
- Konstituzioari eta legeei jarraiki dihardu, eta inpartziala da (ez ditu interes partikularrak defendatzen, legeak babesten dituen interes sozialak eta publikoak baizik).
- Bakarra da estatu osorako. Ministerio Fiskaleko kide bakoitzak Erakundea ordezkatuz dihardu, eta beti bere Fiskalburuak eskuordetu ondoren (Ez dira independenteak, Epailleak ez bezala).
- Ministerio Fiskalaren Organoak
- Estatuko Fiskal Nagusiak burutza gorena du, eta estatuko fiskal guztiei aginduak ematen dizkie. Erregeak izendatzen du, Gobernuak proposatu ondoren.
 - Auzitegi Goreneko Fiskaltza.
 - Auzitegi Nazionaleko Fiskaltza.

- Auzitegi Nagusietako Fiskaltza.
- Probintzia Auzitegietako Fiskaltza.
- Drogen legez kanpoko trafikoaren jazarpen eta errepresiorako fiskaltza berezia.



VI. Estatuaren ondare-erantzukizuna, justizia-administrazioaren egintzen ondorioz

- Herritarrei huts judizialaren ondorioz eragindako kalteak (adibidez, Aitor delitu batengatik kondenatu dute, baina ondoren egiaztatu da berak ez duela delitu hori egin).
- Justizia-Administrazioaren funtzionamendua desegokia denean edozein arlotan (zibila, zigor-arloa, lan-arloa, administrazioarekiko auzietako arloa, arlo militarra eta babes konstituzionalaren arloa), Estatuaren kargurako kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dute kaltetuek, konpentsazio gisa.
 - Kalte moralak eta kalte materialak barne hartzen ditu.

1.2. Administrazio publikoa eta herritarrak



I. Estatuko administrazio publikoaren antolaketa

1. Estatuko administrazio zentrala

- Hierarkikoki antolatuta dago.
- Organo Zentraletan eta Lurralde-Organotan egituratzen da.

1.1. Organo zentralak

- Gobernua: Ministro-Kontseilua.
- Gobernuaren Batzorde Delegatuak: zenbait ministerio-sailetakook.
- Gobernuko Presidentea.
- Gobernuko Presidenteordea.
- Ministroak eta Estatu-Idazkariak.

1.2. Lurralde-organoak

- Gobernuaren Ordezkariek: beren funtzioa Autonomia Erkidegoetan Administrazio Zentrala ordezkatzeko da.
- Gobernuaren Ordezkariordeak (lehengo Gobernadore Zibilak) probintzietan Gobernuaren Ordezkarien menpe daude.
- Ministerioen Ordezkaritzak.

2. Autonomia administrazioa: autonomia erkidegoak

- Konstituzioak, Espainia (estatu espainiarra) 17 Autonomia Erkidegotan antolatuta dagoela adierazten du.
- Autonomia Erkidegoa bere eskumeneko maila guztietan zuzentzen duen araua Autonomia Estatutua da.
- Autonomia Erkidego bakoitzak berezko erakundeak ditu funtzio legegileak, betearazleak eta justizia-administrazioak erabiltzeko.

Ondoko erakundeak dituzte:

a) Autonomia Parlamentu bat, berezko eskumenak dituzten gaiei buruzko arauak onartzen dituelarik. Euskal Autonomia Erkidegoan, egoitza Gasteizen dago.

b) Autonomia Gobernu bat, ondoko hauek osatuta:

- Autonomia Erkidegoko Presidentea –EAEn Lehendakaria da–.
- Sailburuak, Presidenteak izendatzen dituelarik.

- EAEn, Eusko Jaurlaritzaren egoitza Gasteizen dago.

c) Autonomia Erkidego bakoitzean Auzitegi Nagusi bat dago. EAEn, egoitza Bilbon dago.


- Zenbait gai Estatuaren eskumen eskusibokoak dira, eta beraz, ezin dira Autonomia Erkidegoetara transferitu.

Horrela, adibidez, Estatuako Parlamentuak bakarrik onar ditzake lege organikoak. Epaitzeko eta epaitutakoa betearazteko funtzio jurisdikzionala eta epaileen izendapena ere Estatuari dagozkio.

- Konstituzioak Autonomia Erkidegoen berezko eskumenen alorrak (transferitutako gaiak) eta Estatuaren eskumen eskusiboko alorrak (ezin dira transferitu) adierazten ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoa

- Euskal Autonomia Erkidegoan, AUTONOMIA ESTATUTUA oinarritzko erakunde-araua da.
- Euskal Autonomia Erkidegoa –EAE–, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoez osatuta dago.
- Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren egoitza Gasteizen dago.
- Erakundeek gaztelaniaren eta euskararen koofizialtasuna ziurtatzen dute.
- Euskal Herriko botereak Legebiltzarraren, Jaurlaritzaren eta Lehendakariaren bitartez bideratzen dira.



3. Foru-administrazioa

- EAE osatzen duten hiru lurralde historikoetako bakoitzak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) berezko erregimen juridikoa du (foru-erregimen berezia).
- Foru-Administrazioaren organoak ondoko hauek dira:
 - a) Batzar Nagusiak (organo legegilea).
Bertan, bozketa zuzen eta askearen bitartez eta ordezkaritza proportzionalaren irizpideei jarraiki (lurralde bakoitzeko eskualde guztiek ordezkaritza izan dezaten) hautatutako lurralde historiko bakoitzeko ordezkariak parte hartzen dute.
 - b) Foru Aldundiak (Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa), (organo betearazleak):
Lurralde bakoitzean gai jakin batzuetan eskumen eskusiboak dituzte.
- Autonomia Erkidegoko erakundeak eta lurralde historiko bakoitzeko erakundeak artean sor daitezkeen eskumen-gatazkak Arbitro-Batzorde batek ebazten ditu (batzorde hori, Eusko Jaurlaritzak eta dagokion lurraldeko Foru Aldundiak askatasunez izendatutako ordezkari-kopuru berdinez osatuta dago, eta EAEko Auzitegi Nagusiko Lehendakaria da Batzordeburua.

4. Toki-Administrazioa

Ondokoez osatuta dago:

- a) Udalak: udal-eremua.
- b) Mankomunitateak: zenbait Udal zerbitzu jakin batzuetarako elkartzen direnean eratzen dira.
- c) Administrazio-Batzordeak.



II. Administrazioaren jarduerak

Bere jardunaren barruan, Administrazioak, bere eremua edozein izanik ere (zentrala, autonomiakoa, tokikoa) zenbait funtzio betetzen ditu:

- Zerbitzu Publikokoak, herritar guztiei zuzendutakoak (garraioa, irakaskuntza, osasuna, eta abar).
- Herritarren banakak nahiz taldeko jarduerak sustatzeko funtzioa, interes orokorraren onerako baitira (adibidez, diru-laguntzak).
- Polizia edo zaintza-funtzioa: segurtasuna eta ordena publikoa mantentzea.



III. Administrazio-Egintzak

- Administrazioak, garrantzi hierarkiko ezberdineko egintza ugari egiten ditu bere jardunaren barruan. Egintza denetan, Administrazioak legeen menpe dihardu (legeak herritarrek nahiz Administrazioak bete behar dituzte).

- 1992ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Erkidearen Legeak, Administrazioaren organoen jarduna eta administrazio-prozedura erregulatu ditu.

- Administrazioak legea eta herritarren eskubideak errespetatu egiten ditu bere jarduerak, Administrazio-Prozeduraren bitartez, ondokoaldi hauek bereiziz:

1. Espedientea Irekitzea: "Ofizios", Espediente hori Administrazioak berak irekitzen duenean, edo "Alderdi batek eskatuta": herritar baten erreklamazio edo eskaera baten bitartez.

2. Espedientearen instrukzioa egitea: aldi honetan, erreklamazio edo eskaeran alegatu diren gertakariei loturiko frogak guztiak egiten dira. Gehienezko epea 6 hilekoa da.

3. Espedientea Ebaztea: Administrazioak ebazpena ematen du, espedientea amaituz (erreklamazio edo eskaera onartuz edo ukatuz).

Espedientea, zenbaitetan, "administrazio-isiltasunagatik" ere amaitu daiteke, hau da, administrazioak 3 hileko epean ez duenean erantzuten. Isiltasun hori positiboa izan daiteke: ebazpena egin den eskaeraren aldekoa dela uler-tzen da; edo negatiboa: eskaera ezetsi egin dela ulertzen da.

4. Ebazpena jakinaraztea Espedientean barne hartuta daudenei. Jakinarazpenak pertsonala izan behar du (hartu izanaren

adierazpenarekin), eta Administrazioak ezin badio interesatuari pertsonalki jakinarazi, ebazpena Aldizkari edo Buletinetan argitaratuko du (BOE, Administrazio Orokorraren egintzetarako, eta Probintziako edo Autonomia Erkidegoko Aldizkaria, tokiko edo Erkidegoko Administrazioaren egintzetarako, hurrenez hurren).

5. Ebazpena Betetzea. Administrazioak emandako ebazpenaren edukia betetzea da. Interesatuak bere borondatez ez duenean hori betetzen, Administrazioak Nahitaezko Betetzearen bitartez egin dezake (premiamendu-bidea, ondasunen bahikuntza, isunak, eta abar).

6. Administrazio-Errekurtsoak. Interesduna administrazio-espediente amaitzerakoan Administrazioak emandako ebazpenarekin ados ez badago, bide judizialera jo dezake Administrazioarekiko Auzietako Errekurtsoa jarriz, baina alde aurretik Administrazioaren beraren aurrean errekurtsu bat jarri beharko du, administrazio-egintzaren berrikuspena eskatuz. Errekurtso horrek ez du egintzaren betetzea eteten.


7. Administrazio-bidea amaitu duenean, interesdunak bide judizialera jo dezake, dagokion Epaitegi edo Auzitegiaren aurrean Administrazioarekiko Auzietako Errekurtsoa jarriz.



IV. Administrazioarekiko auzigaietako jurisdikzioa

- 1) Administrazioarekiko auziez arduratzen diren Epaitegi eta Auzitegiez osatuta dago (Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiak hiru euskal hiriburuetan, eta Administrazioarekiko Auzietako Salak Auzitegi Nagusietan).
- 2) Jurisdikzio honek Administrazio Publikoaren behin-betiko egin-tzen aurka jarritako Errekur-tsoak ebazten ditu, Administrazioarekiko Auzi-

Errekur-tsoaren bitartez. Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa jartzeko epea bi hilekoa da, administrazio-bidea amaitzen den unetik zenbatzen hasita, hau da, Administrazioak administrazio-espediente amaituz ebazpena ematen duen unetik. Interesdunari ebazpen hori pertsonalki jakinarazten zaion egunaren biharamunetik hasten da zenbatzen.



justizia-administrazioko liburuxken fitxategi-zerrenda

1. Justizia-administrazioa. Administrazio publikoa eta herritarrak.
2. Gatazkak ebazteko era alternatiboak.
3. Oinarrizko lan-gida.
4. Atzerritarren eskubideen gisa.
5. Erregistro zibilaren gida. Adin-nagusitasuna eta emantzipazioa. Bizilekua eta auzotasun zibila. Heriotza. Pertsonen desagerpena.
6. Ondorengotzak eta jaraunspenak.
7. Jabetza-erregistroa eta merkataritza-erregistroa.
8. Hiri-errentamenduak.
9. Prozedura zibileko lege berriaren prozedurak.
10. Salaketak eta lekukoak jurisdikzio penalean.
11. Defentsa eta ordezkaritza epaitegien aurrean.
12. Doako laguntza juridikoa.
13. Guraso eta seme-alaben arteko harremanen gida. Guraso-agintea. Filiazioa. Tutoretza eta tutorearen irudia. Ezgaitzea. Defendatzaile judiziala. Adopzioa. Harrera.
14. Adingabekoen erantzukizun penala.
15. Tratu txarrak eta etxeko indarkeria. Sexu-askatasunaren aurkako delituak .
16. Bikote-harremanen gida. Ezkontza eta bikote-bizikidetzak. Guraso bakarreko familiak. Banantzea, dibortzioa eta baliogabetasuna. Banandu eta dibortziazteko prozeduraren aldiak.
17. Familia-harremanetik eratorritako pentsioak. Seme-alaben aldeko elikagai-pentsioak. Konpentsazio-pentsioak banantze edo dibortzio kasuetan. Senideen artean elikatze obligazioa.
18. Laguntza bidezko ugalketa.